

[Genero autobiografikoa eta teknika zinematografikoa baliatuz ematen digu Ernaux-ek bizitzea tokatu zaion familiaren eta gizartearen argazki kritiko hau.]

LEKUA.

Annie Ernaux

Itzultzailea: Joseba Urteaga

2003

Igela

Bistan da, bai, "école du regard" eta "nouveau roman" mugimenduetatik edan duela Annie Ernaux-ek. Hala erakusten du behintzat 1984.ean Renaudot saria irabazi zuen eleberri honetan.

Zirkularra da eleberriaren egitura, aitaren heriotzarekin hasi eta bukatzen dena. Zirkulua ez da, ordea, erabat ixten, edo, bestela esanda, zirrikitu bat uzten da zabalik eleberriaren amaieran. Benetan zirrikitu garrantzitsua, gainera.

Eleberri autobiografikoa. Aitaren heriotzatik abiatu eta atzera egiten du denboran.

Bigarren Mundu gerrako seme-alaba ditu gurasoak, txiroak eta galtzaileak. Ekinaren ekinez, konplexu eta lotsei gogor eginez aurrera atera direnak eta alabari, berari, ikasketak eman dizkietenak. Ikasketa horiexek edo, oro har, intelektualtasuna bera da krisiaren sorburu, aitaren eta alabaren arteko krisiarena: "Liburuak, musika eta hori guztia, ongi dago zuretzat. Nik ez ditut behar *bizitzeko*".

Krisia bere baitakoa ere bada, ordea, eta horixe erakusten du, nik uste, eleberriaren amaieran azaltzen zaigun neskak, kutxazain lanetan ari den bere ikasle ohiak.

Teknika zinematografikoa darabil Ernaux-ek denboran atzera egin eta gauzak oraintxe bertan gertatzen ariko balira bezala kontatzeko. Argazkiak eskainiko dizkigu maiz ("Ibaitezko patio txikian ateratako argazki bat") eta etengabe erabiliko ditu orainaldiko aditz-denborak iraganean kokatutako pasadizoak kontatzeko: "Ama zain zegoen irteeran... Bat-batean abiada mantsotuz *esaten du*:...". Eta aurreraxeago "Amak *jakinarazi digu*..." Bietarako tradizioa dugu euskaraz aditzaren aspektuari dagokionez: burutua nahiz burutu gabea erabili izan dira. Behin bat aukeratuz gero, ordea, harixe

etsiko nioke nik behintzat, nahiz eta, egia esan, bi moduak elkar nahasirik erabiltzea ez den eragozpen testuak behar bezala kurri dezan.

Bada, argazkien teknikaz gain, Marguerite Duras-ek ere bere eleberrietan erabilitako beste teknika bat kontakizun honetan: tarte zuriak. Tarte horiek denboran egindako jauziak dira (memoria-hutsuneak, seguruenik, iragana nahasirik oroitzen baitu, egileak berak aitortzen digunez). Duras-enetan, berriz, isiluneak ziren.

Duela gutxi Ixiar Rozas-ek esan digun bezala, literaturaren dohainetako bat dena ez esplizitatzearena da. Horrexegatik dugu eskuartean eleberri bat eta ez biografia huts bat. Eta horretara ere badatoz tarte zuri horiek, bai eta lekuen izenak ez ematea (Y..., L...). Iradoki egiten du Ernaux-en literaturak, estilo xume eta idazkera zuzen batean iradoki gainera, esaldi motz eta korapilatu gabeen bidez. Bada, alde horretatik, itzulpenari beste ohar bat egin beharra. Bortxatu samarra iruditzen zait honelako esaldietan subjuntiboa erabiltzea: "Mutikoak, ..., besarka dezan eta eskutik helduta eramán dezan uzten dio". Aski litzateke, nik uste: "Mutikoak, ..., besarkatzen eta eskutik helduta eramaten uzten dio". Nolanahi ere, itzulpen txukun eta zaindu baten aurrean gaude, Igela-k ohituta gauzkan bezala.

Zirkulua erabat ixten uzten ez duen zirrikitua aipatu dugu arestian, ikasle ohiaren irudiarena. Bada, ikasle ohi hori aurkeztu aurretik, tarte zuri horietako batez bereizirik, honako aitortpen hau irakur dezakegu, komentariarik behar ez duena, erabatekoa: "Izenburu batez gogoratzen naiz: *Mugen esperientzia*. Eta hasiera irakurri nueneko dezepzioaz, metafisika eta literaturako gaiak soilik. Idazten aritu naizen denbora guztian ikasleen etxeko lanak ere zuzendu ditut, eta idazlanak egiteko ereduak prestatu, horretarako ordaintzen didatelako. Ideia-joko horrek eta *luxuak* inpresio bera eragiten zidaten, irudipen hutsaren sentsazioa, negargura".

Mikel Garmendia